

Erromeria Eguna

ERRETERIAN

Bat, bi, hiru... saalto!

Duela bi hilabete dantzako ikastaroan hasi zirenak jadanik prest daude plazara irteteko



EDURNE KOCH

Erretereriako dantza ikastaroa. Hantxe ibili da jende gehien dantza ikasten.

«BAT-BI-BAT, bat-bi-bi, bat-bi-hiru, saalto!, bat-bi eskuin, bat-bi ezker, buelta!...». Horrelakoekin lehen urratsak ikasten hasi zirenak edozein musika erritmori jarraitzeko moduan dira jada. Ezin daiteke esan lan erraza izan denik. Bi hilabete hauetan gogoz izerditu dira herri dantzen ikastaroetan parte hartu duten guztiak.

Gehienek lanak zituzten lehenengo irakasleek indio jefeen moduan ematen zituzten aginduak betetzeko. Baina, pixkanaka-pixkanaka,

haien hizkuntzara ohitu eta oinak eta mugimenduak koordinatu zituzten. «Ez da erraza, eta, gainera, justu moldatzen hasi garenean, berriro ere al-

daketa: orain kantari hasi zaigu irakaslea». Berriro ere heldu dira larritasuna, kezka eta desesperazioa. Hala ere, ondokoei begiratuta animoak altxatzen zaizkio bati baino gehiagori: «Eskerrak denok berdin gaudela!». Irakasleek, bien bitartean, irribarrez erantzuten diete kexu guztiei. «Hasi- siera guztiak dira zailak, batez ere inoiz dantzan aritu ez dire-

nentzat, baina ikastaroen amaieran denak izango dira gai plazara irten eta dantza egiteko».

Ordenagailu artean ere bai

■ DANTZA IKASTAROAK Euskal Herriko txoko guztietara heldu dira. Ikastola, dantza talde, euskaltegi eta ordenadore tartean ere erakutsi dira dantza urratsak. Donostiako Informatika Fakultatean, hamasei lagun inguruko taldea osatu dute dantzan ikasteko. Hala ere, ikasgiletan sartu gabe irakasleen bulego tartean egin dira

herri dantzen ikastaroak. Irakasleek nahiago izan dute eskolak ikaslerik gabe jaso. «Lotsa-edo izango da». Irakasle moduan Olatz Arbelaitz lankide eta dantzaria izan dute. Informatikari talde horrek fandango eta arin-arina ikasi dituzte, eta, Olatzek dioenez, «batzuek ohiko ikasleen tankera dute: klasea ere huts egiten dute».

Une hori iritsi da, gehienentzat azkarregi, baina ilusioz

daude guztiak. «Bat-bi-hiru, saalto!, tireron, tirerireriron!» eta antzekoak ahaztuta, orain benetako musika doinuekin dantzan egiteko garaia da. Azken entseguetan musi-

ka ekipoa martxan jarri eta plazan entzungo dituzten doinuekin jardun dira. Askok oraindik irakasleari begiratzten diote, ez dira beren buruarekin fio, baina, pixkanaka, beldurra eta lotsa kenduz joan dira. Ereintza Dantza Taldean eskolak ematen jardun den dantzari taldeak ikastaroetako giro bikaina azpimarratu du. «Guk ere ondo pasatzen genuen, eta horrek asko erraztu du guztion lana».

Ikastaroa amaituta, batzuk oso kontent daude egindako lanarekin. Batek baino gehiagok dio, umorez, laster oholtzara igo, taldean dantzan hasi eta txapelketetara ere animatuko dela. Beste batzuek, ordea, gehiago espero omen zuten. «Segurako txapelketa ikusten ari nintzela, telebista aurrean dantzan hasi eta ezin nien jarraitu dantzari, ez zituzten gure urratsak egiten», zioen emakume batek.

Ikastaroak 30 lekutan baino gehiagotan

Ikastaroak 30 lekutan baino gehiagotan egin dira. Dantza taldeetan erakutsi zaio jendeari dantzan, baina baita bestelakoetan ere; esate baterako, Tuterako Ikastolan eta AEK-ko zenbait euskaltegitan. Zalantzarik gabe, jende gehien elkartu den gunea Erretereria izan da. Bertan, 200 lagunek baino gehiagok ikasi dute dantzan.

Ikastaroen arrakasta nabaria izan da. Erkuden Goñi irakasle ari da Altsasun, eta, haren ustez, «plaza giroak tiratu egiten du». «Hemen, Sakanan, herri gehienak txikiak dira, festetan musika egoten da batez ere, eta jaietan asko egiten da dantza». Haren ustez, horrek bultzatu du jendea dantzara.

CYNE REYNA
EDARITEGIA

Zuzeneko emanaldiak

YA

Gamon Zumardia - 943 52 94 56 tel. - ERRETERIA-ORERETA

Maria de Lezo, 7
© 943 51 96 54
20100 ORERETA

ARATZ TABERNA

SINDIKATO TABERNA

Madalena kalea, 38
Tel.: 943 52 49 38
ORERETA

bar
ARSO

Itxaroten
zaituztegu
gure betiko
giro onarekin

Viteri, 31 • 943 51 00 16 • Renteria

Egunkaria

JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!!